

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA «JULIO DE URQUIJO»

# International Journal of Basque Linguistics and Philology

LII: 1-2 (2018)

*Studia Philologica et Diachronica  
in honorem Joakin Gorrotxategi*

# *Vasconica et Aquitanica*

Joseba A. Lakarra - Blanca Urgell  
(arg. / eds.)



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **Geroaldiko partizipio prospektiboaren polimorfismoa eta -n-dun aditz klasea\***

## *The polimorfism of the participle prospective of future and the -n class of verbs*

Beñat Oyarçabal eta Manuel Padilla-Moyano

IKER UMR 5478 – CNRS

### **Abstract**

*This paper deals with the realisation of the prospective participle, the most common way to express the future in Basque. The authors start from present-day variation, as synthesised by the Royal Academy of the Basque Language: the adjunction of the suffix -ko to the perfective participle, except for the forms ending in -n or -l, which in Eastern dialects take the genitive suffix -en. Based on the study of both old texts from different dialects and works on verbal morphology, the authors show that the variability of the marking of the prospective participle is greater than usually thought: on the one hand, Labourdin texts attest for a late use of the suffix -(r)en with vowel-ending participles (e.g. biziren, ikusiren, harturen); on the other hand, in the 17<sup>th</sup> century forms such as izaren ‘izanen’ and egoren ‘egonen’ arise in Labourdin and Western Low-Navarrese dialects. The authors consider two possible explanations for the prospective forms of the type izaren: 1) in phonological terms, a dissimilation of nasality (cf. Michelena 1990); and 2) in syntactical terms, a change in the selection of the complement argument by the T-head, lexicalised by the genitive suffix -(r)en. In this view, the forms such as emaren or egoren are the result of adding the suffix -(r)en not to a perfective participle eman ‘given’ or egon ‘rested’ (as in ikusi-ren ‘seen-PROSP’), but to a verbal root -ma- or -go-, respectively.*

**Keywords:** *future, prospective participle, perfective participle, Eastern Basque, tense and aspect heads in sentence structure.*

---

\* Eskerrak bihurtzen dizkiegu argitaratzaleei, omenezko ikerlan bilduma honetan parte hartzera gonbidaturik, ohore eta plazer baitaukagu J. Gorrotxategi ikertzaile maisuari eginikako gorazarre honetan agertzea.

## Laburpena

*Artikulu honek partizipio prospektiboaren gauzatzearren formak aztertzen ditu. Egi-leak egungo aldakortasunetik abiatzen dira, Euskaltzaindiak laburbildu bezala: partizipio perfektiboari -ko atzizkia eranstea, salbu -n edo -l bukaera duenean, ekialdeko mintzoetan -en genitiboaren atzizkia baliatzen baita. Hala hainbat euskalkitako testuetan nola aditzaren morfologiaren gaineko lanetan oinarriturik, egileek hauxe erakusten dute: partizipio prospektiboaren markatzea onartzen ohi den baino aldakorragoa dela: 1) Lapurdin -(r)en atzizkiaren erabilpen berankorra bokalez bukatzen diren partizipioekin (biziren, ikusiren, harturen); eta 2) XVII. mendetik aitzina, izaren 'izanen' & egoren 'egonen' bezalako formen agerpena lapurteraz eta mendebaldeko behe-nafarreraz. Ondoren izaren & egoren moldeko forma prospektiboak ikertuak dira, haien agerpena bilduz: lehenik, azalpen fonologiko bat formulatzen da (cf. Mitxelena 1990); bigarrenik, forma horiek denbora-burutik argumentuaren hautapenaren aldaketaren emaitza gisara analizatuak dira, genitibo atzizkiaz lexikalizatua, aspektu sintagma ala aditz sintagma izan. Ikuuspegi honetan, emaren edo egoren bezalako formak ez lirateke eman & egon partizipiei, baizik ere -ma- & -go- aditz erroei -(r)en atzizkia eranstearen emaitza.*

**Hitz gakoak:** *geroaldia, partizipio prospektibo, partizipio perfektibo, ekialdeko euskalkiak, denbora eta aspektu buruak perpaus egituran.*

### 1. Atariko hitza

Honela dio Euskaltzaindiak *Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma* izenburutzat daukan 85. arauko azalpenean, geroaldiko adizkera perifrastikoak aipatzean:

Etorkizuneko adizki perifrastikoetako lehenbiziko osagaia partizipioari -en edo -ko atzizkia gehituz eratzen da. Hortaz, euskaldunon usadioa ez da bat eta bakarra:

- Mendebaldean -ko atzizkia da ezagutzen den bakarra: *etorriko, lagunduko, esaktuko*. -n-ren ondoren gertatzen denean, -go izango da atzizkia: *esango, irtengo, jango, emango*, etab. -l-ren ondoren gertatzen denean, -ko eta -go biak ageri dira: *hilko / hilgo*.
- Ekialdeko euskaretan, kontsonante ondotik -en atzizkia erabiltzen da; bokalarren ondotik, aldiz, -ko (nahiz batzuetan -(r)en ere agertu, batez ere Zuberoako tradizio zaharrean). Hortaz: *emanen, erranen, janen* batetik; eta *ikusiko, biziko, galduko* bestetik (baina horien ondoan *ikusiren, biziren* edo *galduren* ere bai, nahiz askoz maiztasun urriagoarekin).

([http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0085.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0085.pdf))

Lerro horietan geroaldiko partizipioen formez aspaldi handiskoan gramatika gehienetan ematen diren datuak ditugu, geroaldiko partizipioen eratzerakoan, euskara batuko jokabide egokiena zein litzatekeen erabaki aitzin, Euskaltzaindiak irakurleen begietara eta gogora ekarriak.

Erran gabe doa ez dela gure xedeetan sartzen hemen delako erabaki horren auzitan ematea. Besterik da, haatik, datuez lerro haietan baieztaturik dagoenari oharren egitea. Ez Euskaltzaindiak gainerako gramatikarien erranak oker laburbiltzen ditue-

lako, baizik ere, aitzitik, ongi biltzen dituelako. Merezi du, beraz, gure ustez, hurbil-hurbiletiik ikus dezagun geroaldiko *-en* eta *-ko* atzizkien banaketa zehazki erraten ohi den bezala gertatzen den, edo ba ote den horretan zuzenketarik egiteko, edo eskas den xehetasunik gehitzeko. Xede hori dute, hain zuzen, ondoko lerroek, hots, geroaldiko partizipioen formak, egun, ikertzaileek balia ditzaketen corpusak baliatuz, nork noiz zer testu motatan erabili dituen zehazki biltzea eta aurkeztea.

## 2. Partizipio prospektiboaren atzizkiez

Geroaldiko partizipioetan, *-ko* eta *-en* atzizkien erabilerak, partez, euskalkien araberakoak eta, partez, aurreko ingurumen fonologikoaren araberakoak direla dio Euskaltzaindiak, eta, literatura ikusirik, hala da. Alabaina, bat datoaz euskalariak (EGLU II: 116) geroaldiko partizipioetako bi atzizkien arteko banaketa osagarria, alde batetik dialektala, eta bestetik, fonologikoa dela oinarritzat hartzeko.

Dialektala, zeren, Euskaltzaindiak gogoratzen digun bezala, mendebaldeko euskalkiek, salbuespenezko kontradibide bakar batzuk izanagatik, *-ko* baizik ez baitute erabiltzen.<sup>1</sup> Fonologikoa ere bestalde, ezen uste hedatuena da *-en* atzizkia erabiltzen den euskalkietan (ekialdekoetan, hots) erabilera hau testuinguru fonologiko batera mugatua dela (Zuberoatik kanpo bereziki): *-n* edo *-l* fonemetako bati lotzea, hain zuzen: batetik, *izanen* eta *hilen*; bestetik, *izango* eta *hilgo/hilko*.<sup>2</sup>

Azken puntu honetaz egitekoak ditugu lehen oharrak. Lehenik, gramatikalariek aspaldi ohartarazi zuten *-en* atzizkia bokalen ondotik erabiltzen dela ekialdeko euskalkietan: *ikusiren*, *biziren*, *galduren*. Euskaltzaindiak Zuberoan bereziki gertatzen

<sup>1</sup> Honela dio Mounolek (2011: 74): «Le participe prospectif est formé à partir du participe passé, par suffixation des morphèmes *-(r)en* et *-ko* homophones des cas génitifs de la déclinaison habituellement nommés « génitif possessif » (Lafitte 1962), « genitiboa » (Euskaltzaindia 1985) et « génitif locatif » (Lafitte 1962), « leku-genitiboa » (Euskaltzaindia 1985) respectivement. La majorité des textes orientaux (labourdin, bas-navarrais, souletin) des 15<sup>e</sup>me et 16<sup>e</sup>me siècles emploient uniquement le participe en *-(r)en*. Leizarraga et Oihenart sont les seuls auteurs de l'époque à présenter quelques participes en *-ko*. Malgré tout, ces formes sont exceptionnelles : chez l'auteur souletin on n'en relève qu'un exemple, et chez Leizarraga, elles sont rares (3 occurrences dans tout le texte) et ne concernent qu'un verbe, *etorri* « venir » (*ethorrlico* Adv 260-8; Mat. 23, 36; Mat. 24, 14) (Lafon [1972] 1999: 513; Zulaika 1999: 169). Les textes haut-navarrais ont des données différentes selon les auteurs. Amendux, dans son poème, ne se sert que des formes en *-(r)en*, tandis que le *Credo*, et les phrases issues des procès de sorcellerie ne rapportent que des participes en *-ko*. Les textes occidentaux (alavaïs et biscayen) et centraux (guipuzcoan), eux, ne connaissent que le participe prospectif en *-ko*. Enfin, il faut souligner que les dialectes orientaux qui dérivent généralement leur participe prospectif par adjonction du suffixe *-(r)en* au participe passé, ne se servent que de *-ko* lorsque le marqueur de futurité est directement suffixé à l'élément non-verbal de la locution».

<sup>2</sup> Mounolek argi ematen dizkigu iraganeko euskalki nagusien joerak: «La forme du participe prospectif varie selon les dialectes. Alors que les Biscayens Urkizu, Arzadun et Barrutia, et les Guipuzcoans Otxoa Arin et Irazusta le forment en suffixant le suffixe *-ko* au participe passé, l'auteur souletin Maisster emploie à sa place le suffixe *-(r)en*. Chez le labourdin Etxeberri de Sare et les haut-navarrais Elizalde et l'auteur du sermon de 1729, on a des participes prospectifs en *-ren* et d'autres en *-ko*. Cependant, la distribution des deux morphèmes n'est pas changeante, au contraire, elle est très bien codifiée. Les participes terminés en *-n* prennent le suffixe *-(r)en* (*jakinen*, *erranen*, *iraunen*, *izanen*), tandis que ceux finis en *-tu* et *-i* se voient systématiquement adjointre le suffixe *-ko* (*salbatuko*, *deituko*, *jujatuko*; *ikusiko*, *etorrako*, *ardietsiko*, *hasiko*, *ibiliko*). Les verbes *bete* et *atera*, sans doute respectivement d'origine adj ectivale et nominale, eux aussi préfèrent le suffixe *-ko* pour former leur participe prospectif» (2011: 189).

dela dio, baina Lapurdiko idazlanetan ere kausitzen dira horrelako lekukotasunak (ikus Padilla 2011). Hona 19 eta 20. mendeetako lapurtar idazle batzuen adibideak:

1. *Ni naiz biztea eta bizia bera,ene baitan sinhetstea duena biziren da, hilla balitz ere: eta nork ere baidu ene baitan bere sinhetstea, eta hura ez da bethikotzat hi-lleñ (Larregi).*
2. *Ez da, ez da hiltzerik, bethi da biziren: / Bakhotxaren arimak bahi egiaren! (Hiribarren).*
3. *Gero berriz elkar ikusiren dugu, eta erranen deraitzut gauza batzu zoiñetaz zure bihotza ukituren baita (Duvoisin).*
4. *Nork du ikusiren Jaunaren begala? (Iratzeder).*
5. *Oh! muthil gazte hori dabilke beraz lañoki lurreko ilhunpe huntarik; Jainkoak bere besoetan harturen du; eta horra non haren bilha dathozin zerutik Aita, Ama, Anai! (J.-P. Arbelbide).*

Adibide horien ondoan aipa daiteke testu bakan batzuetan ageri den geroaldiko beste atzizki berezi bat, bere baitan bi genitiboak bata bestearen ondotik hartzen baititu, -koren morfema konposatura emaitza dela. Padillak honela dio:

xvi. mende akabantzakoak diren Urtubiako damaren gutunetan *-ko + ren* sekuentzia ageri da: *Orango faltak estalikoren ditugu* (13. gutuna) & *Zer ere baita, edukikoren dugu kontu jakitera* (17. gutuna). Harrigarriagoa da Lubietaren eskuizkribuan (Donostia 1728) ber pleonasmoa atzematea: *Virxinamaren rosarioa beti ezaten badezu, honrra guciac combeni bada ceurecotucoren dituzu* (Lubieta 390 apud Mounole 2011: 189). Mounolek Lubietaren gurasoen nafar etorkia seinalatzen du *ceuretucoren* horren azaltzeko (*ib.*), eta gure ustez Urtubiako damak *estalikoren* & *edukikoren* emateak ber esplikabidea luke: Urruñan plazatua, haren familiak etorki giputz-nafarra bide zuen (Padilla 2017: 433, 326. oh.).

Kontua ez da hor fini. Zuberoan ezaguna da -(r)enko atzizki pleonastikoa, Santa Grazi herrira mugatua (Azkue 1925: § 762). Lafonentzat atzizki bikoitza pleonasmo hutsa da, batere balio differentziarik ekartzen ez duena baizik (1965: 175). Horren lehen lekukotasuna *Charlemagne* pastoralean kausitu dugu: *pariserat çitit eramanenco* (Xarlem 1373; Oyharçabal 1991: 331). Caminok -(r)enko atzizkiaren berri zehatza dakarkigu:

Zuberoan badago aditz nagusiari etorkizuneko bi atzizki lotzeko aukera, baina ez da herrialde guztiko ezaugarria, Xiberuko ekiäldeko baizik; ez da, beraz, zuberera guziaren berrikuntza: *janenko, eramanenko* dakartzza Elixagarai ligiarra (82) eta Santa Grazin ere baliatu da: *jinenko* dakar Maddi Hardoi lekuoko Peilleni kontatu ixtorio batean (1985: 21); euskaltzain honek dakkarenez, Eskiulan eta Santa Grazin baizik erabilten ez zen *-renko* aldaera ia galzorian da (1992: 250) eta *emaneko* erakoak, Santa Grazin, Montori-Berorizen, Eskiulan eta ondoko auzoetan daude (262); cf. Etxegorri (2003: 271). Guri Larainen *emanenko* erakoak Santa Grazikotzat eman dizkigute. Ezaugarria ez da Zuberoa guztikoa (2009: 202).

Azkenik, ez da komeni ahanztea geroaldiko *-ko* eta *-(r)en* atzizkien banaketa dialektala denborarekin aldatu datekeela. Zuberoako testuen azterketan oinarriturik, Padilla ondoko ondorioetara heltzen da:

Partizipio prospektiboak ekiälde handian hartzen ahal dituen bi atzizkiak, *-ko* eta *-(r)en*, banaketa ezagunean agertzen dira [...]. Oro har, zenbatenaz mendeberalago,

hainbatenaz *-ko* gehiago, eta *-(r)en* gutxiago. Corpusaren azterketak erakusten du prospektiboaren bi atzizkiak lekukotuak direla Zuberoako testu zaharrenetan (Etchart, Oihenart eta Tarta) baina, bereziki, XVIII. mendearren azken partetik aitzina *-ko* atzizkiak nolabaiteko hedakuntza izanen duela. Funtsean, bilakaera horretan ez da desberdintasunik *-tu* eta *-i* sailetako partizipioen artean. Bestenaz, dialektologiaren ikuspegitik hain ezaguna den *-(r)enko* forma pleonastikoak agerpen marjinala du corpusean.

Bi hitzez erraiteko, azken mendeetako Zuberoan partizipio prospektiboaren *-(r)en* morfema era esklusiboan lekukotzen duten testuak gero eta gutxiago dira, itxuraz morfemaren bilakaera errezesiboarengatik. Hizkuntza osoaren ikuspegitik, *-(r)en* aukera ekialderat gibelatuz joan da, han ere indar galtzeko. Azken buruan, *-(r)en* morfemaren erabilpen prospektiboa eta benefaktiboa lotuak dira, bi elementuen joera diakronikoak eta eremuen bat etortzeak erakusten dutenez (2017: 435).

### **3. Izaren ‘izanen’ eta erraren ‘erranen’ bezalako formez**

*-n* batez bukatzen diren partizipioekin agertzen den *-ren* geroaldiko atzizkiaz zer erran? Orain arte gramatikalariak deus guti mintzatu dira hartaz, gehienetan, baze-nik ere ez jakinik hain segur, ez baitute aipatu ere —ezta, Iparraldeko testuak hain artoski eta ximenki ikertu zituen P. Lafittek ere—. Hona zenbait adibide, gaian bar-nago sartu baino lehen, fenomenoa nola azaltzen zaigun ikusteko, irakurleari lagun-garri gerta dakizkiokeenak:

6. *Segurqui, Bettiriño, comeni baita, bai eta probechos ere; ezic nun hazemaren dute behatore dohacabec eta penitent afligitu eta penatuec hau batino exemplu eder eta imitagarriago bat?* (KadBet 54-55).
  7. *Ez othe ninzate sekulan / Hain dohatsu gerthaturen, / Non behatuen khasatzeko / Bizia bainuke emaren!* (Gazteluçar).
  8. *Sainduaren 12 fruituak Guztien gañetik izan Ezak karitatea, Ezen berthutetan har dik Eramaren florea (EZ).*
  9. *O amudio eternalaren ithurria, zer erraren dut zutas? nola sekulan zu abantz ahal zaitzaket, nitas orhoitu zarenas geros?* (Arbill Imit III 10, 2).
  10. *Alpetako menditarik iragaren zela erori zen ohoinen eskutarat* (Larregi).
  11. *Muiollatuko duzu Sen Michelgo puntaren trebesean 5 edo 6 brasetan eta orduban izaren tzare leku segurean* (Etcheberri Dorre).
  12. *Ortzirale, larunbatetan Haragirik eztuk jaren* (Gazteluzar).
  13. *Ezen ni bezalako pobreak, zer egiñ ahal dezake, eta norat goaren [= joanen] nais?* (Arbill Imit III 29, 1).
  14. [...] eta maleziaren ispiritua zureganik ihesi joaren da (Arbill Imit IV 18, 3).
  15. *Zakharias abertitua izan tzela ukharen zuiela seme bat egiazco Messiasen aintzindaria* (KadBet 2-3).
  16. *Eztuten behinere edireren bere gelan belhauriko baizik* (Larregi, Zenbeit sainduen bizitzea, «Santa Klara»).
  17. *Berris ere minzatuko natzaizu ene Jainkoa, esnais ixilik egoren ene Jainko* (Arbill Imit III 10, 1).
- 6-17. adibideetako prospektiboak ustekabekoak dira, ezen Lapurdin eta lapurtearen tradizioan (*h*)atzemanen, emanen, eramanen, erranen, iraganen, izanen, janen, joanen/goanen, uk(*h*)anen, ediren-en eta egonen erabiltzen ohi baitira geroaldi perifras-

tikoan geroaldiaren markatzeko. Halere, 6-17. adibideek darakuskigutena, gauzak ez dira hain argi, XVII eta XVIII. mendeetako testuetan bederen. Gorago erran bezala, zenbait ikertzaile gaztez landa (Mounole 2011; Padilla 2011), gramatikalariek ez dute batere aipatu molde hau. Aitzinekoen artean, salbuespen bakarrenetako Mitxelena dugu, bere tesian forma haien agerpenaz eta dagokien aztermoldeaz hipotesi bat ere aitzinatu baitzuen. Dakartzagula hona haren erranak, *larunbat* hitzaren etimologiaz<sup>3</sup> eraunstein paratuak:

Se puede sostener que en *laurenbat*, etc., ‘sábado’, *-bat* no es el numeral que siempre se ha creído reconocer, sino mera apócope de *-bate*, sustantivo verbal, es decir, *bat + -te*. Es curioso que *-te* sea terminación tan frecuente en nombres que tienen que ver con la cuenta del tiempo: *aste* ‘semana’, *igande* ‘domingo’ (ronc. sul. *igante*), explicado a veces como nombre verbal, *mende* ‘siglo’, etc. (ronc. sul. *mente*, con oclusiva no aspirada en suletino: la hipótesis de un préstamo del latín se compadece mal con el sentido), *urt(h)e* ‘año’. El texto de Leizarraga en su declaración de palabras y expresiones del Nuevo Testamento, s.u. *Sabathoa*, es el siguiente: «Eta hura cen asteco Zazpigaren eta azquen eguna, orain batéc larambate, bercec eguiacoitz eta bercéc nesquen egun deitzen duguna». De *lagunen*, gen. pl. como *nesken* saldría \**la(g)uren* con la misma disimilación de nasalidad que se observa en lab. (siglo XVII) *emaren*, *izaren*, de donde mod. *emain*, *izain*, de *eman*, *izan* + *-en* (Mitxelena 1990: 501).<sup>4</sup>

XVIII. mende erditsuko Hazparnen datatu eta kokatu testu baten kari, Padillak datu gehiago eskaintzen du, eta Mitxelenaren azterbidea gogoratzen (2011: 57):

Bada beste ezaugarri bat izkirio honetako geroaldiko forma zenbait lotua: *-ren* akabantza eransten zaie *-n* batez bukatzen diren partizipioei (*izaren*, *ukharen*). Sistemátikoa ez bada ere, *izaren* eta *ukharen* maiztasun handikoak ditugu, eta besteak askoz bakanagoak. Fenomeno hau azterzeke dagoen arren, ohar batzuk egin genitzake: i) soilik gertatzen da *-a + n* akabantza duten aditzetan; ii) guztietañ lekukotzen dira *-ite* aditz izenak; eta iii) lekukotzen dira, halaber, *-ain* moldeko geroaldiak.

1. taulak *Kadet eta Bettiríñio* testuan ageri diren geroaldiko *-aren* formak biltzen ditu:

### 1. taula

Participio prospektiboak *Kadet eta Bettiríñio* eskuizkribuan (ca. 1750)

Participio perf.	Aditzizen	<i>-en</i>	agerr.	<i>-ren</i>	agerr.
<i>izan</i>	<i>izajiten</i>	<i>izanen</i>	5	<i>izaren</i>	22
<i>ukhan</i>	<i>ukhajiten</i>	<i>ukhanen</i>	—	<i>ukharen</i>	8
<i>joan</i>	<i>joaïten</i>	<i>joanen</i>	3	<i>joaren</i>	1
<i>erran</i>	<i>errajiten</i>	<i>erranen</i>	8	<i>erraren</i>	3
<i>hatzeman</i>	<i>hatzemaïten</i>	<i>hatzemanen</i>	1	<i>hatzemaren</i>	1

<sup>3</sup> Ordea, *n > r* bide hori sustenga lezaketen formak bakanak dira. *Lagunen bat > larunbat* etimologiaz gainera *belhauriko* ‘belauniko’ aipa genezake (ikus horretaz Gavel 1920: 270-271). EKC-aren arabera, *belhaurika(tu)* zein *belhauriko* aldaerek 22 eta 49 agerraldi dituzte, hurrenez hurren; Zuberoan batez ere *belharika(rü)* & *belhariko* lekukotzen dira, eratorpenaren oinarri nominala *belhain* delarik.

<sup>4</sup> OEHk azterbidea biltzen du, LARUNBAT sarreran: «Quizá de *lagunen bate* “reunión de los compañeros”».

Geroaldiko forma horien jatorriaz denaz bezainbatean, Padillak bi bide nagusi ikusten du: 1) bokalarteko *-n-* galdurik (*izanen* > *izaen* > *izain*) *-r-* bat sartzear; edo 2) disimilazioa (*izanen* > *izaren*); horiekin batera «bada beste aukera bat aurrekoekin guztiz bateragarria: nolanahi ere den, hiztunaren gramatikan bada edutezko genitibo atizkia *-r* erabiliz hartzen duten aditz kopuru handi bat [...]. *Utziren, estaliren, ger-taturen* bezalako formekiko analogia, beraz, ez litzateke baztertu behar» (2011: 57).

Datuak hobeki eta molde osoagoan funtsatu behar zirela ikusirik, Euskal Klasi-koen Corpusa (EKC) erabili dugu,  $B_{\text{ok}} K_{\text{on}}$  + *-ren* forma prospektiboa, testuetan noiz nork baliatu duen azterzeko. 2. taulak azterketa horren datuak erakusten ditu:

## 2. taula

*Izaren* moldeko geroaldien lekukotza *-an* bukaerako partizipioekin

	IZAREN <i>izanen</i>	JOAREN <i>joanen</i>	EMAREN <i>emaren</i>	ERAMAREN <i>eramanen</i>	ERRAREN <i>erranen</i>	ATZEMAREN <i>atzemanen</i>	IRAGAREN <i>iraganen</i>	UK(H)AREN <i>uk(h)anen</i>
Etxeberri Z	— 122	— 11	— 46	1 16	— 21	— —	— 5	— —
Etxeberri D	27 112	— 133	— 35	— —	— 1	— —	— 4	— —
Aranbillaga	135 —	3 —	9 7	— —	6 9	— —	5 3	— —
Gazteluzar	2 63	— 5	2 20	— 1	— 14	— —	— 1	— —
Xurio	2 131	— 4	— 24	— —	— 9	— 1	— 6	— —
KadBet	22 5	1 3	— —	— —	— —	1 1	— —	8 —
Larregi	— 225	— 1	— 70	— 7	3 30	— —	1 2	— —

*Izaren* moldeko partizipio prospektiboa agerrarako ditzaketen aditz gehientsuenak *-an* bukaera dute, 2. taulan ageri denez. *-n* aitzineko bokala bestelakoa delarik, etsen-pluak anitezze gutiago dira; horrela, *-en* bukaerarentzat *edireren* ‘ediren’ behin bai-zik ez dugu aurkitu (ikus 16. adibidea; EKC-ren arabera egile berak 18 aldiz ematen du *ediren*); *-in* akabantzarentzat ere *jakiren* ‘jakinen’ bakan bat (EKC-erik kanpo, astolaster batean); *-on* bukaeran *egoren* ‘egonen’ formaren sei agerraldi kausitu ditugu, guztiak Aranbillagaren testuan (ikus 17. adibidea; aldiz, Aranbillagak ez du behin ere *egonen* ematen); azkenik, *-un* bukaerako partizipioekin (*ehun*, *errun*, *entzun*, *iraun*, etab.) adibide bihirik ez dugu kausitu.

2. taulako datuek erakusten dutenez, *izaren* moldeko formen eremuia nonbait Lapurdira mugatua agertzen zaigu, eta haien lekukotza XVII eta XVIII. mendeetara.<sup>5</sup>

<sup>5</sup> Betiere EKC-ren arabera, Hegaoaldeko egile zenbaitek agerraldi bat edo beste lekukotuko lukete; Mogelek *emaren* soil bat, eta Mendiburuk, Aranburuk eta Garitaonandiak *izaren* bana. Halere, gure ikusteko maneran *ematen* eta *izaten* irakurri behar da: lehenik, agerraldi kopurua estatistikoki baztergarria delako, eta bigarrenik mendebaldeko mintzoetan *-(r)en* erako geroaldi prospektiborik agertzea harri-garri litzatekeelako; gehiago iduri luke espero gabeko forma horiek irakurketa oker baten ondorio izatea, moldiztegiko lan zenbaitetan bereziki, *r* eta *t* letrek elkarren antza izan baitezakete.

EKC-az landara, *izaren* bezalako partizipio prospektiboak *Le Dauphin* itsasontziko euskarazko gutunetan ere ageri dira (Lapurdi, 1757), baina haien maiztasuna ez da batere altua: orotara sei agerraldi kausitu dugu (18-23 adibideak). Halaber, Iñaki Caminok gatzigatu digun bezala, XVIII. mendeko Lapurdiko bi gutun ofizialetan ere *itxaren* ‘izanen’ eta *eraren* ‘erranen’ ageri dira (24 eta 25. adibideak, hurrenez hurren).

18. *Uste nuben aditu denbora guzietan zutaz gizon behar den bezalako bat hizaren ziñela* (39. gutuna, Haraneder apeza, Urruña).
19. *M. Iriberriri emaren diozkatzuene errespetuak* (39. gutuna, Haraneder apeza, Urruña).
20. *Ez dakit azetatuko duen; azetatzen badarot emaren dautzu salbamendua due-larik ene letra batekin* (49. gutuna, Francha Barrere).
21. *Neure goraintziak emaren diozkazu familia guziari* (33. gutuna, Betry Dague-erre, Getaria).
22. *Ene espos maitea, esperantza dut gure Jainkoak emaren darozkitzula zeinbeit ispirazione on* (43. gutuna, Joana Aprendisdeguy, Getaria).
23. *Piarres, eztut hemen ematen deus xehetasunik batere, berdin letra hauk arriba-tzen badire gizonek errare dautzute* (31. gutuna, Katalin Douat, Bidart).
24. *Jaun Marquis de Caupenac emantu ordenac arrastaceco, ecin oraino atceman detcacete, baiñan ustedut atcemanac itxaren direla* (Donibane-Lohizuneko gutun bat, in Satrústegui 1986: 142).
25. *Andre horec berac gauça guciac eraren darosquitçu presa du Erretiraceco* (Urruñako gutun bat, in Satrústegui 1986: 142).

#### 4. Azalpenen xerka

Ondoko lerroetan, forma horien aztermoldeaz hiru hipotesi egiten ditugu, aukerarik egin gabe.

- a) Grafia berdinketaren hipotesia. Mitxelenak azpimarratu bezala, *izanen* edo *emanen* partizipioen ahoskerak /izajn/ edo /emajn/ dira —bi silabatan—. Ahoskatzeko beste molde bat ere bada, non *e* bokala osoki desagertzen baita hartzan, eta ondorioz aitzineko bokala luzatzen edo doblatzen: /izā[á]n/, /emā[á]n/. Ahoskera horiek genitibo arrunta duten ondarkietan ere kausitzen dira: ogiaren > /ogiain/ edo /ogiā[á]n/; ikus EHHA VII. liburukiaren 1750. galdera, 438. or. Galdera da, beraz, idazle batzuek, genitibo arruntarekin era-biltzen zuten grafia-moldea, ez ote zuten erabiltzen berdin, ahoskera berbera zuten geroaldiko partizipioetan.
- b) Fonologiazko aldaketaren hipotesia. Mitxelenaren hipotesia da, V-nen segidak, sudurkaritzearen disimilazioa ekarririk, V-ren segida atera zela ondorioz.
- c) Morfologiaren bidezko hipotesia. Azken aukera hau, zorigaitzez gure ustez egiantz gutien duena, interesgarriena da bestalde, euskal adizkien morfologiaz eman liezagukeen informazioagatik. Ohargarria da, -ren hartzen duten partizipio gehienek partizipio perfektiboa -an bukaerakoa dutela (*izan*, *erran*, *eman*, *joan*, *igan*, *jan*, *etzan*, *edan*, etab.). Arras guti dira horrelako geroaldiko

formak *-n* aitzineko bokala beste bat denean (ikus § 3); *-on* aditzekin funtsean *egoren* ageri da, eta soilik Aranbillagaren itzulpenean; azkenik, lehen erran bezala, *-un* bukaerako partizipioekin adibide bihirik ez dugu kausitu.

Geroaldiko marka hori darakusten aditz partizipio gehienek jokabide trinkoa ere badute bestalde, zeinetan aditz-erroa beti bokal batez bururatzan baita: *-a* edo *-o* batez (adibidez, *joan* edo *egon* aditzekin). Aditzoineko erroak eta aditz-errokoak berak izan behar luketelako hipotesia egiten badugu, aditz-erroetan erroaren ondotik agertzen den kontsonantea (*-n* *joan* eta *egon* eta 6-17. adibide sortako gainerako aditz gehienetan) ez da errokoa, beste morfema bat baizik, Traske (1990) *-n* aditz multzoari buruzko hipotesian ondorioztatu zuenaren kontra.<sup>6</sup> Orduan geroaldiko *-en* morfema aditz erroari zuzenean lotzerakoan ager liteke *-r-* loturazkoa (eta ez ohi den bezala partizipio perfektiboari). Dena den, ez zen artikulu honen helburua forma bezei horien azalpenaren ematea, haien agerraldien berri ematea baizik. Geroko lan battean jorratuko dugu beste kontua, funskiago.

## Erreferentziak

- Azkue, R. M., 1925, *Morfología Vasca*. Bilbo: Editorial Vasca.
- Camino, I., 2009, «Mugako hiztun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan», *FLV* 111, 153-218.
- EHHA = *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa. VII. Lexikoa. Izen Morfoloxia. Sintaxia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EKC = *Euskal Klasikoen Corpusa*. Euskara Institutua (UPV/EHU). Online: <<https://nww.ehu.eus/ehg/kc>>
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque*. Paris: E. Champion.
- Lafon, R., 1965, «Les deux génitifs en basque», *BSL* 60 [berrarg. in *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999, 173-197].
- Mitxelena, K., 1990 [1961], *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mounole, C., 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*, doktorego tesi, UPV/EHU & Université Michel de Montaigne - Bordeaux 3.
- Oyarzabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Édition critique de « Charlemagne »*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.

<sup>6</sup> Bestalde, aditz-errokoa denean bukaerako kontsonantea, ez ohi da galtzen forma trinkoetan: adib. *nabi-l*, *daku-s-t*. Bestalde, seinalatzeko da, arras guti badira ere (hiru, orotara), adibide batzuk badirela, non *izar* forma *izan* partizipio perfektuaren orde agertzen baita. Forma hauek, halere, *izaren* bezalako forma prospektiboak agertzen diren baino testu anitzez berriagoetan aurkitzen dira: edo xx. mendearren hastapeneko Iparraldeko almanaketan, edo Larzabalen antzerki batean. Hona adibideak: *Odolareni ixurtzen, ez ditu bi mende, Saran ikhusi dute, Madalen Larralde, Yainkoa ukatzeko, izara zuen galde, Hiltzea hautatu du, fedeareni alde* (Eskualdunentzat egunari edo Almanaka berria 1903); *Hainbertzeturadino non Colombe miserable hil izar baitzen, anbitz etsaigoa, bekoizkia eta eskergabetasun jasaiteko ukhani[k]* (Eskualdunentzat egunari edo Almanaka berria 1908); *Eta Katxo bera, zer izara duk?* (Larzabal, Borda-xuri).

- Padilla-Moyano, M., 2011, *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizoenaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*. Bilbo: Euskal-tzaindia.
- , 2017, *Analyse diachronique du dialecte souletin (XVI<sup>e</sup>-XIX<sup>e</sup> siècles) – Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa (XVI-XIX. mendea)*, doktorego tesia, UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne.
- Satrústegui, J. M., 1986, «Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII», *FLV* 47, 125-150.
- Trask, R. L., 1990, «The -n class of verbs in Basque», *Transactions of the Philological Society* 88, 111-128.
- Urkizu, P., 1998, *Zuberoako irri teatroa. Recueil des farces charivariques basques*, Baigorri: Izpegi.

Beñat Oyharçabal & Manuel Padilla Moyano  
Gaztelu Berria, 15 place Paul Bert - 64100 Baiona  
[manuel.padilla@iker.cnrs.fr](mailto:manuel.padilla@iker.cnrs.fr)